

Euskaldunen legea

IÑAKI ZABALETA URKIOLA



EUSKALDUNEN legea senidea senidearen aurka, laguna lagunaren aurka, herrikidea herrikidearen aurka, eta euskalduna euskaldunaren aurka ihardutea da.

Hargatik izan ziren historian zehar beaumontarrak agramontarren aurka Nafarroan, oinaztarrak ganboatarren aurka Gipuzkoan. Horren adibide ziren Gipuzkoako eta Bizkaiko hiriak eta «villak» Erdi Aroan, Kastillaren alde eta beste euskaldun nekazarrien aurka.

Horregatik jarri ziren euskaldun batzuk *Espainietako* erregeen eta erreinen alde, eta beste euskaldun batzuk bertako erregeen alde.

Honegatik joan den mendean Euskal Herriko karlistek euskaldun liberalen aurka hiru gerra zituzten egin. Eta bertako agure zaharrak ehun urtera oraindik heldu ez zirela, Francoren gerra izan zen eta Nafarroako euskaldunek gipuzkoarrak eta bizkaitarrak tiroz txikitu zituzten.

Gaurko demokrazia aroan ere euskaldunak euskaldunaren aurka dihardu. Hertzain eta ETako gehiagok ere hilko du elkar oraindik, EAJkoak eta HBkoak elkarri hozkara jarraituko dute, nahiz eta batzutan udaberri loretsua dela irudi izan, eta azken borroka, azken laban sartzeak, azken lepore-hortzak, azken hostikoak barrabiletan EAJren eta EA-ren artean ari gara ikusten. Bi alderdi hauek ere aliatuak eta lagunak bilatu dituzte, EE ofiziala eta Añamendikoak. Euskaldunen legea, jaingo txiki batena bezala baita, sekulan bukatu ez den eta bukatuko ez den borroka antzua elkarren artean, bihotza azkazalez atera nahi elkarri eta horretarako ere aski indar ez izaki. Agian honetan datza gure iraupen historikoaren ezkutuko zaina.

Udako bakantzak Xalbador Ikastegian

GEXAN LANTZIRI



AURTEN ere, udako oporretan, ez da Xalbador Ikastegia hutsik eta ixilik gelditu.

Alde batetik, aitzineko bi urtetan bezala, hegoaldeko 180 haurrek bertan iragan baitute beren udalekua, hamabost eguneko hiru alditan banaturik. Bizkaia Foru Aldundiaren bitartez.

Eta beste aldetik berriz, uztailaren 15ean hasi eta irailaren 9a arte, bost gela berri eraikitzen ari izan baitira, buraso, irakasle, ikasle, laguntzaile eta ofiziale. Orotara, 120 bat nonbaitan, bakoitzak nahi zuenaren arabera egun bat edo bi, hiru edo lau, aste bat edo berdin bi, bakar batzuek lau astetarako bertan lanean pasatzen zituztelarik. Zer elkartasun ageria. Eta lanean, zer giro ona! Zinez kemengarria!

Ofizialei esker beraz, eta hauen inguruan, bildu diren laguntzaile guzietan, irailaren 10ean estreñatu ahal izan dituzte ikasle-irakasleek, Xalbador Ikastegiko bost gela berriak.

Ez uste izan ordea, irakurle, borondate oneko lan mota hori bururatu dagonik. Ezen, beharrei erantzuteko, datozen bi urteotan, hamar gela berri eta 50 ohetako barnategi berri bat eraiki beharko baititugu.

Lerroaldi hau bururatzeko, lehen gela berriak inauguratu genituelarik erran nuena errepikatuko dut gogotik. Eta da: alde batetik, euskarazaleen arteko elkartasunaren uztza ederra dela Xalbador Ikastegia, eta bestetik, frantses injustizia normalizatuaren lekuko gorde ezina.

●EL●MUNDO

Euskadi da gure arazoa

Espainiako nazionalismoarekin dugun enfretamendua ahalik eta bizkorren negoziatu behar dugun arazoa da.

Bertako alderdien artean dauden enfretamenduak, euskal nazionalismoaren auziak gehitu egiten dituenak, zuzendu behar den arazoa dugu; nazionalistak bi alderdi nagusitan banatuz —sozial-demokratak eta demokrata-kristauak— eta Euskadiko proiektuaren menpean egongo liratekeenak.

Borroka armatua gelditzea, aurretik aipatu diren bi arazoen konponbideen ardatzean bertan dago.

J. EMALDI / 1991-IX-20

●LA VANGUARDIA

Jugoslavia, kukuak oker jo

Eztabaidatu ez den arazoetako bat, argigarria dena eta Jugoslaviatik kanpo ere interesa duena, lurraldearen defentsaren kontzeptua da eta hori izanda Kroaziako eta ondoren izango diren matxinak ahalbideratu dituenak. Kontutan izan behar da orain Serbia eta armada federalaren aurka borrokan ari diren miliziak, goardia

nazionalak eta herritar organizazioak, horien izen ofiziala Jugoslaviako Armada Herritarra dena, modu legalean eratuta eta armatua zeudela, material arin eta zaharkituekin bazen ere.

(...)

Jugoslavian bizi den dramaren ondorioz honako irakasbidea jaso dezakegu: armada territorial edo goardia nazional sistema, hain eraginkorra dena EEBBetan edo Britainia Handia bezalako herrietan, aho biko arma izan daitekeela independentzia nahiak dituzten nazionalitateetan dauden herrialdeetan, alegia.

FRANCISCO L. DE SEPULVEDA / 1991-IX-20

●Navarra hoy

Teknikariak eta politikariak

Allik teknikari askorekin osatu nahi izan du Gobernua, baina dituen asmoek oztopo handiak dituzte. Exekutibo onak enpresa pribatuan askoz gehiago irabazteaz gain kontselari modura baino argi dago ondorengo Gobernuak gutxiengo parlamentariak izango dituela eta hori lasta piztutua da. Horieta zentzuzko teknika-rik egonkortasun politiko handiagoa edo alderdi nagusiekin kolaborazio handiagoa balego onartuko lukete lanpostua, baina oposizioan sozialistak egonik eta oposizio hori aurre-



ITURRIA / SUD OUEST / 91-IX-20

ra eramateko prest, bakarrik UPNren ideologia garbi daukatenak eta ildo horretan bokazio politiko sendoa dutenak izango dira, erronka bereganatuko dutenak.

JAVIER LEGARDA / 1991-IX-20

●ABC

Arteratu, parte hartu

Hamabien Europak edozer gauzaren gaitetik nahi du serbiar eta kroaziarren arteko borroka ebitatu, eta baita montenegroa eta esloveniaren artekoa ere. Baina Komunitateak ez daki sarraskiari nola eman amaiera.

(...)

Kontzeptuak ahalik eta garbien utzi behar dira: arteratzea borrokan dauen onartzen duten indarra da. Parte hartzeak, ordea, borrokan ari diren aldeetako baten tiroak jasotzeko arriskua du.

(...)

Orrialde hauetatik Europako Komunitatearen ezintasuna ikusi ahal izan dugu kezkatutik eta arteratzearen alde azaldi gara. Hala ere, parte hartzearen legitimitatea ere defendatu dugu UEOk (Mendebaldeko Europaren Batasuna) alde bien onarpena izaten ez bada. Nazio handiek eta txikiak orain izango dute aukera ikusteko europar proiektua benetako den ala komertzial eta finantza interesen sindikatu txikia sortzea bakarrik lortu den.

EDITORIALA / 1991-IX-20

ZUZENDARIARI

Bederatzi

9 era askotara entzuten da gure euskalkietan: beatzi, betzi, bedratzi, beratzi... baina guztietan gauza bera da, bat gehituz gero hamar, alegia. Nola idatzi guztiok ulertzeko moduan? Euskalki guztiak hizkuntza bakar batetik sortuak badira ez ote dago guzti horien ordezkio izango den hitz bakar bat erabiltzerik? «Bederatzi» noski, erraza zen hori, baina 143.678, nola idatzi txeke batetan? Esatea bai, erraza da, baina erderara jo behar ote dugu euskaldunok txeke arrunt bat idazteko? Eta inpreso batetako eskakizunak ulertzeko beste aldean erderaz zer dioen irakurri behar? Eta gutun eta eskaera ofizialak egiteko? Euskaraz irakurtzeko ohitura ezak EUSKALDUNOK EGUNKARIA nahiz ARGIA, Jakin... irakurtzeko oztopoa izan

behar al du? Euskararen batasuna ez da iadanik utopia bat, horren froga nabarmena duzue orrialde hauetan, baina euskara bat izatetik, normalizaziora bide luzea dago oraindik. Jende asko da lan horretan ari dena, baina lan guzti horrek huts egin dezake euskaldunok behar bezala erantzuten ez badiogu. Ezer gutxi badiogu du euskal literatura sendo bat sortzeak irakurtzen duenik ez badago, euskara hutsean inor gutxi irakurriko duen egunkari bat ateratzeak adina; hipokresia hutsa da erakundeei euskara hutsezko harremanak bideratzea eskatzea edota dokumentu ofizialak gutxienez elebidunak izatea eskatzea, horietaz baliatzen gaiten izanik, beste norbaitek, agian, nahiago izango duelako aitzakiaz baliaturik eskaera hori aldarrikatzea.

Izan ere, ez da lan handia H batzuek gorabehera euskaraz idazten ikastea, ez du erderak eskatzen ez duen trebezia berezirik eskatzen eta borondate apur batekin lan horri ekin ez gero zailtasunak ez dira hainbestekoak.

Anima zaitetz!

IÑAKI ELIZEGI ERRETERIA

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia argi eta garbi agertu beharko dira gutunean. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

PERTSONAIA



Claudia Cardinale

Zineko artista da Claudia Cardinale edertasunarekin ez du egin kale Donostira etorrita hemen ere bale urte batzuk bai baina dale eta dale.

NIKOLAS ZENDOIA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:
JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:
INMA GOMILA

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIAN ETXEZAHARRETA
IÑAKI URIA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11